



BERROBI, ELDUAIN ETA BERASTEGI BIZIKLETAZ

Eskualdea ezagutu bizikletaz sailaren barruan, hiru herri horiek bisitatuko ditugu, guztira 22,6 kilometro eginez >2



TOLOSALDEKO
ETA LEITZALDEKO

hitza

Larunbata
2009-07-11

VII.URTEA 1.751.ZENBAKIA
ESKUALDEKO EGUNKARIA

WWW.TOLOSALDEKOHITZA.INFO



Atzerriko bisitariak, Bedaion auzolanean

GIZARTEA Munduko hainbat txokotatik etorritako gazteak Bedaion daude egunotan 4-5



Santiago egoitzako langileei babes azaldu die ELAk

VILLABONA Hilaren 15era arte greba egingo dute langileek; atzo manifestazio jendetsua egin zuten 6

Goian, 'Pelex' erakusketan ikusgai dauden txalapartariekin; behean, Irazu, barraskiloz inguratutik. IT.



600 bat lagunek hartu zuten parte manifestazioan. R. CALVO

IRAZU ETA 'PELEX'-EN LANAK ARANBURUN IKUSGAI UDA OSOAN

TOLOSA Atzo egin zuten Karlos Irazuren 'Kolpez kolpe' eta Jose Luis Elexpe 'Pelex'-en 'Hotsez hots' erakusketen inaugurazioa 7


Tolosa CFko Irene Usabiagarentzat bi urrezko domina

TXIRRINDULARITZA Espainiako Txapelketan krono eta linea probetan lortu du garaipena 3



Eskualdeko punturik altuenetarikoa bisitatuko dugu gaurko txangoan: Berastegi; %8ko aldapak topatuko ditugu tarteka; guztira 22,6 kilometroko ibilbidea izango da.

Berrobi- Elduain- Berastegi



JOXEMI SAIZAR

Zer moduz dihoaz bizikleta ibilaldiak eskualdea ezagutzeko? Ondo ari al zarete burutzen? Bada prestakuntza guztiak beharko dituzue gaurko txangoa egiteko, eskualdeko punturik altuenetakora joatea tokatzen baita: Berastegi (406 m). Aldapa gogorak izango dira bidean eta hori ahaztu egiten bazaizue, zuen sufrikarioa gogoraziko dizuten %8ko aldapa adierazten duten seinaleak topatuko dituzue errepide bazterrean.


Berrobotik Elduainera, aldaparik gogorrena

Tolosatik Ibarrarako paseotxoan aurreko ibilaldiaren bera izango dugu hasteko, lau xamarra. GI-2130 errepidea jarraituz aldapa leuna izango dugu ondorengo lau kilometroetan Berrobiraino. Txomin Garmendia bertsolariaren herria eskola berria dute (eskola txikien eguna ospatu dute aurreko hilabetean) eta udaletxea, San Andres eliza eta Urreburu frontoia ere ikus daitezke.

Ondoren dator etapa honetako



Bosgarren ibilbidean Tolosaldeko punturik altuenetarikoa bisitatuko dugu, Berastegi. JOXEMI SAIZAR



ederrarekin. Udaletxea ere ez da nolana hiko, jauregia dirudi. Larreko San Lorentzo, San Sebastian eta San Anton basilizak, Jaundegi dorretxea, eskola, Ipuliño pilotalekua eta beste hainbat etxe dotore ere aurki daitezke bertan. Jose Antonio Muñagorri politikaria, Txomin Jakakortajarena idazlea eta Jesus Altuna antropologoa bezalako pertsonai ospetsuak eman ditu herri honek.

Behin herria bisitatu, itzultzeko bide bera hartuko dugu, oraingoan errazagoa, dena aldapa behe-
ra baita. Kontuz ibili behar da bihurgune itxietan. Elduain pasata, eskuinetara zementuzko bideka bat hartuta Berastegiko auzo bat bisita dezakegu: Eldua. Aldapa leuna dago kilometro erdian, igotzerakoan hartu dugun altuerari esker. Eliza eta plaza ikusita, beste bide batetik (hau asfaltatua) jaitsi gaitezke berriro GI-2130 errepidera, Munksjo paperfabrikaren parera. Handik aurrera bide bera da daukagu: Berrobi, Ibarra eta Tolosara.

aldaparik gogorrena, niretzat behintzat: Berrobotik Elduainera. Ehun metro eskaseko desnibela gaudituko dugu bi kilometro eta erdietan, baina gogorra egiten da. Elduainen eskualdeko frontoirik zaharrenetakoa topatuko dugu, 1879koa. Migel Soroa pilotari txapelduna bertan hasiko zen, noski, eta baita, beran duago, Zeberio anaia erremontistak ere. Manuel Santa Kruz apaiz-gerrillaria izan zen beste seme ospetsu bat. Santa Katalina parroikia, Santa Kruz baseliza (mendialdean, 2005ean errezena) eta udaletxea ere aipatzekoak dira toki esanguratsuen artean.

Elduaindik Berastegira hiru kilometro baino gehixeago ditugu eta 150 metroko desnibela, baina niri behintzat aurrekoa baina xamurragoa egin zitzaidan. Berastegi eskualdeko herri altuenetakoa dela esan dugu lehenago. Baita dotoreenetakoa ere. Zelaiune zabalean kokatzen da. Tourseko San Martin parroki-eliza ere berezia du: herriatik aparte, kilometro erdi batera edo, eta herriari bizkarramanez gainera, erretaula aterpe



Nahi duzun tokira eramango zaitugu uda honetan



GARMIN nüvi 200 GPSa

Harpidedun egin zaituz eta lortu doan GPS hau

- Kioskoan baino %10 merkeago eskuratuko duzu.
- Goizero etxean, antokian, zure eguneroko kioskoan duzula ziurtatuko dizugu.
- Gure promozioetan (disko bildumak, liburuak, mendiko gidak...) abantaila bereziki gozatzeko aukera izango duzu.
- Astero-astero harpidedunen artean opariak banatzen ditugu.
- Mantangorri Larunbatero 16 orrialdeko gehigarri koloretzua haur eta gaitzesentzuz.
- NORA bidalia aldiakaria hilabetero BERRIAREKIN...

Animatu! Merez du

HARRERANTZEMAKU:
943-90 43 45 • harpidetza@berria.info

AUKERA EZAZU, BIZI! EUSKALDEKO **berria**

*Ute osoko harpidetzarako

TOLOSALDEKO ETA LEITZALDEKO hitza bertako egunkaria

egin zaituz harpidedun!

902-82 02 01
(Astegunetan 09:30-20:30 / Larunbatetan: 09:00-13:00)

www.tolosaldekohitza.info

eraman/bidali izen-emate orria:
Arabako bidaiak 5 beheko • 20400 Tolosa
Herriko plaza 1 • 31880 Leitza

beharrezkoa da datu guztiak betetzea

• Izen-abizenak:	• N.A.:
• Lanbidea:	• Jaioteguna:
• Helbidea:	• Herria:
• P.K.:	• Tel.:
• Posta elektronikoa:	
• Kontu zenbakia:	<input type="text"/>

Abenduaren 13ko 15/1999 Lege Organikoa, Datu Pertsonalari Babesteko, betetik, jakinarazten dizugu zure datu pertsonalak TOLOSALDEKO HITZA HEDABIDEAK S.M.-ren fitxategi automatizatu batera pasatuko direla, erregistratu diren emakitekin. Zure esku dago ikuskerako, zuzentzeko, ezarritako eta kontrol egiteko eskubideak erabiltzea. Hala egin nahi izanez gero, idatzi helbide honetara: TOLOSALDEKO HITZA HEDABIDEAK S.M. Arabako bidaiak 5 beheko • 20400 Tolosa, edo harpidetza@hitza.info

Laburrak

Datorren asteazkenean Osoko Bilkura egingo dute

VILLABONA ■ Datorren asteazkenean, hilak 15, Osoko Bilkura egingo du Villabonako Udalak, udaletxe-ko batzar aretoan. Bilkura 20:00etan hasiko da. Bertan ondorengo gaiak jorratuko dituzte. Alde batetik, *Biziarreko zigorrik ez!* Euskal presoak Euskal Herrira! mozioa aurkeztuko dute. Bestalde, 2008ko ekitaldiari dagokion Kontu Orokorra behin betiko onartzea proposatuko dute. 2008ko abenduaren 31ri dagokion Ondasun eta Eskubideen Inbentarioaren zuzen-keta onartu edo ez erabakiko dute. Batzarreko azken gaia, Udalaren berezko aurrekontuko kreditu aldakuntzari dagokion espediente-a (4 zenbakia duena) izango da.

Mus txapelketarekin hasiko dira Santamañako jaiak

ASTEASU ■ Santa Marinaren ome-nez festetan dira Asteasuko auzo honetan. Gaur hasiko dira jaiak, eta lehendabiziko ekitaldia gauetan izango da. 22:00etan Santamañako XV. Mus Txapelketa jokatu-ko da.

Telefonoak

Larrialdiak. ((112))

OSASUNA.

Alegialdea. Osasun z.: 943 653212

Anoeta-Alkiza-Hernialde.

Medikua: 943 65 23 39

Asteasu. Medikua: 943 692423

Baliarrain. Medikua: 943 889003

Berastegi-Elduain.

Medikua: 943 683361

Bidegoian. Medikua: 943 681134

Ibarraldea. Osasun etxea: 943 672411

Ikaztegieta. Medikua: 943 653329

Irua. Osasun zentroa: 943 690720

Leitza. Osasun z.: 948 510800

Orendain. Medikua: 943 655595

Orexa. Medikua: 943 682228

Tolosa.

Anbulatorioa, larrialdia: 943 461111

San Esteban: 943 006800

Gernikako arbola: 943 006900

Amarozko dispen: 943 672637

Asuncion klinika: 943 675799 -

943 67 53 90 (larrialdiak)

DYA: 943 672536

Gurutze Gorria: 943 674888

Villabona. Anbulat.: 943 006970

Zizurkil. Aiztondo zerb.: 943 693930

GARRAIOAK.

Refre: 902 24 02 02

Donostiako autobusa: 943 361740

Tolosalde bus: 943 650621

Leitzarantz autob.: 948 221015

Taxia: 943 670420

Taxia (Leitza): 608 873016

BESTERIK.

Ertzaintza: 943 538820

Tolosa-Udaltzaingoa: 943 675858

Tolargi: 943 650016

Iurramendi egoitza: 943 670325

Tolosa gasa: 943 675320

Alkoholiko anonimoak: 943 248474

Bitik bi domina irabazi ditu Irene Usabiaga Tolosa CFko txirrindulariak

Txirrindularitza

Espainiako Txapelketan lehiatu da krono eta linea probetan; bietan ere garaipena erdietsi du.

ERREDAKZIOA

Bigarren urrezko domina erdietsi zuen atzo Tolosa CF taldeko Irene Usabiaga txirrindulariak Cuencan. Espainiako txapelketa jokatu da egun hauetan, eta atzo lineako proban lehiatu zen. Herenegun berriz, kronoan. Honela, bi dominak irabazi ostean, atzo eguerdian etxerako bidea hartu zuten txirrindulariek.

Erlojupekoan, banakako proban Irene Usabiagak bere ahizpa Anaren marka gainditu zuen, eta lehendabiziko urrezko domina eskuratu zuen. Bera izan zen hamabi minutu baino gutxiagoko denbora egin zuen bakarra. Ordiziarrek azaldu zuen ez zuela uste horren ondo korrituko zuenik proba honetan, eta «poz handia» hartu zuen irabaztean. Izan ere, batez ere, linearako aritu da prestatzen azken boladan.

Atzo 11:00etan hasi ziren kade-teen mailan, lineako probak. Cuencako hiriguneko zirkuito batean korritu zuten. Neskek bi itzuli egin behar izan zituzten, denera, 39,6 kilometro zeharkatuz. Espainiako hainbat autonomia erkidegotako 62 lasterkaririk hartu zuten parte bertan.

Lasterketaren hasieran aldapa batean hamar txirrindularik hartu zuten parte, tropela atzean utziz. Horien artean bi euskaldun, Eider Merino eta Irene Usabiaga. Talde nagusiari 2 minutu eta 30 segundo inguruko aldea atera zieten alde



Irene Usabiaga bi aldiz igo zen podiumera, kronoko eta lineako probetan garaipena erdietsi ostean. HITZA

egindakoek. Hauetan, hasiera batean, hamar horien artean joan zen Usabiaga, baina azken sprintean indarrak atera eta bera izan zen helmugara iristen lehena. Bere atzetik, bigarren postuan iritsi zen Judith Vidal balentziarra, eta hirugarren, Gema Castelo murtziarra ailegatu zen.

Tropelean zihoazenen artean, helmugara iristen lehendabizikoa Tolosa CFko Aitziber Azaldegia izan zen. Lasterketa 11. postuan amaitu zuelarik.

Taldean egindako lana kontuan hartuta berriz, Euskal Autonomia Erkidegoko izan zen irabazle.

Espainiako txapelketaren ostean hurrengo hitzordua Tafallan dute Tolosa CFko txirrindulariek. Bertan, Euskalduna torneoa jokatuko da. hau, hilaren 18an izango da, eta 17:00etan hasiko da laster-keta.



Usabiaga bizikleta gainean, kronoko proban korritzen zuen bitartean. HITZA

EB-Aralar Tolosa Eraikitzen SA sortzearen aurka agertu da

Tolosa ■ Koalizioak bere eskuetan dagoen guztia egingo duela esan du «Gobernu Batzordearen proposamena eteteko».

ERREDAKZIOA

EB-Aralar alderdia Tolosa Eraikitzen SA enpresa publikoa sortzearen aurka agertu da. Udaleko Gobernu Batzordeak luzatu du proposamen hau Hirigintza Batzordean, eta Ezker Batua-Aralarrekin adierazi du ez duela ekimena babestuko. Gaineratu du, bere esku dauden bide guztiak erabiliko

dituela aipatutako enpresa sor ez dadin. Alderdiaren hitzetan, «Enpresa honek Tolosa Lantzen SARI kendu dizkieten zereginak betetzea izango luke helburu».

Koaliziokoek azaldutakoaren arabera, Udala bidea egiten hasi da udalerriko lurzorua kudeatzeko eta hirigintza-ekimenak bultzatzeko osoko bilkuran eman zen. Bertan behin behineko onspena eman zioten Tolosa Lantzen SA udal enpresaren bigarren artikulua aldaketari. Artikulu horren arabera Tolosa Lantzen enpresak

lurzorua kudeatzeko eta hirigintza-ekimenak bultzatzeko zereginak hartzen zituen bere helburuen artean.

Gobernu batzordeak egin duen proposamena hiru arrazoi nagusigatik ez du egoki ikusten Ezker batua-Aralarrekin. Alde batetik, beraien ustetan, «udalerriko lurzorua kudeaketa eta hirigintza ekimenak bultzatzea Udalarri berari zuzenean dagokio. Hau hirigintza batzordearen eta sailaren bitartez egin beharko luke».

Gobernu Batzordeak Tolosa Eraikitzen SA sortzeko argudiatu du, hirigintza-arazoan kudeaketa azkartu egingo dela honela, eta

eragin korrago bihurtuko dela. Baina koalizioek uste dute hau ez dela horrela izango. «Hirigintza departamentua baliabide nahikoz hornitzen bada, azkar eta eragin-kortasunez egin ahal izango dira lanak» diote.

EB-Aralarrekoen ustetan, «helburua Tolosako hirigintzaren kudeaketa ilunagoa bihurtzea da». Izan ere, «tartean, enpresa instrumentalak sortzen badira, jardueraren kontrol publikotik at geratzen da». Bestalde, honekin lotuta, gaineratu dute, kasuren batean, jarduera hori enpresa instrumentalen bidez egitea ezinbestekoa izango balitz, Tolosa Lantzen, SAK egin dezakeela hori. Gobernu Batzordearen txostenean esaten denez, «orain arte, Tolosa Lantzen hirigintza-alorrean ekimenik ez du hartu eta alor hori ez du garrantu».

Munduko hainbat txokotako gazteek Bedaio txukundu dute

Bedaio Eusko Jaurlaritzako Auzolandegiaren barruan, osteguneko beste gazte talde bat jangoda, orain arte egon direnei erreleboa hartuz.

NEREUAURBUZ
Hantxe zeuden 26 gazteak, Bedaio garbitokia txukuntzen, nahiko ondo jarri zen eta iturri ingurua garbitzen. Hilaren lehen 14ra eta 16ra, 29a bitartean egingo dituzte Auzolandegiak Bedaio, Nagusi Etxea atzerpe gisa erabilita, han ari dira 15 egun inguruz 26 gazte. Munduko hainbat txokotatik gerturatu dira eta Bedaio txoko batzuk garbitzeko prestutasuna erakutsi dute. Bedaio Auzolandegia Eusko Jaurlaritzako Gazte eta Gastezaintza zuzendaritzak antolatutako programa da eta Tolosako Uda-

leko laguntzarekin antolatu dute. Udalak proiektu bat aurkeztu zuen eta Bedaioa onartu zuen Eusko Jaurlaritzak, Bedaio txukuntze proposatu zutena honako da: garbitokia eta inguru ingurua nahiko ondo berreskuratu, zahar txoko txukuntzea eta iturria ere garbitzea. Izan ere, bertara joateko bidea ere guztiz ixrita zegoen saskin. Lehenengo txandaren harrera hilaren lehen izan zen Tolosako udalarekin, 1800etan iritsi ziren munduko zuzendakari ezberdinetatik Bedaioa auzolandegian parte hartzen duten gazteak; Euskal He-

keratu dute Bedaioa etortzea. Baina, batzuen ere, lurralde desberdinetako jendea ezagutzeko asko animatu ditu gazteak. Bestetik, Euskal Herria bisitatu, bertako kulturako hainbat alor ezagutu dituzte. Adibidez, euskal dantza ikusi dituzte, eta *Zazpi Lauzi* ere ikasi dute. «Trikitilari bat etorri zen dantza bertekin eta bertakoa ikasi zuten».

Euskal Herria bisitatu dute eta euskal kulturaren hainbat alor ezagutu eta ikasi dituzte

«Hainbat lehen aldiz bidea ikusi zuen esanasi pila zegoela ikusi zuten». «Ez zen biderik ikusten, galduta zegoen, den-dena gordeta dago». Gastezaintza bezala, zerbitzu txukun mantentzen nahi bada lana



Garbitokia guztiz ezabatuta zegoen sasi eta landare berriekin. Gazteek txukundu dute. Aska eta bere ingurua ere garbitu dituzte. Ura, ondo, ez da oraindik iturratzen. **N. URIBI**



«Egindako lana bertakoek baloratzea nahi genuke» **N. URIBI**



«Bidea oso politik egiten ditugu denbora librean» **M. KANIK**

TABAKALERA SCOUTEN
Eusko Jaurlaritzako Auzolandegia

Azken Mutila
Achiñ Mutila
Pie Lang
Wil Santiago
Sone
Luisa
Marcelo Libarato
Pete Arce
Pete Arce
Juan José Garratzen
Edwin Van der Heide
Chloe Moore
Poldina
Francisco López

2009.07.11 - 09.27

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

KULTURA SAILAK DIRUZ LAGUNDUTAKO HEDABIDEA



Gazteak aurkezpen ekitaldian egon ziren: harrera Tolosako udalarekin egin zuten. **N. URIBI**

egin jarraitu behar da. Horregatik, Bedaio gazte hainbat txukuntze jarraitu behar da, berriro ere gaitu egin dute bidea, iturria eta garbitokia.

Komunikatze, ingeleza

Hiru begiraiek Herriko eskola-koak dira, begiraiek formatzeko eskola-koak, hain zuzen ere. Berriro bitarteko daude Bedaio lanean hainak, gazte hauek jantzeri eta eguneroko arduraz, besteak



Bedaio Nagusi Etxean hartu dute ostia. **N. URIBI**



Zubia egiten ere aritu dira: hipernuekatik harriak hartuz eraberritu egin dute. **N. URIBI**


1. Zergatik erabaki zenuen Bedaioa etortzea? 2. Gustatzen ari zuzi egindako lana eta egonaldiak?




Matteo Falista
ITALIA, 20 URTE
1. Nire neskalaguna erusiarra da; Espainiara joan nahi genuen. Andaluziara baina bere gogoi egiten duenez guretat, hona etorri gen. Neskalaguna ere hemen dago.
2. Oso gustura gaudu. Lana polita da, batzuetan gogorra da harriak hartu behar diren baina inguru adierazten ari gara eta kutsatzen poza ematen du, emaitza ikusteak poza ematen du.




Miroslav Krizek
CROAZIA, 20 URTE
1. Eskaintzen zuten lana gustatu zitzaizkila, beste kultura bat ezagutzeko aukera zela eta kaskoek bidaiatu ahal izateko bidea delako. Ikasteko bide bat ere bada.
2. Gustatu zaiz. Sutan izan naiz lan egiten modu horietan baina hau asko hobea da. Janari eragatik, lan modu eragatik eta ezagutu dudun jende desberdinearengatik batzere ere. Oso leku dotorean egiten dugu lan gainera.



Marko Kanik
SLOVENIA, 20 URTE
1. Beste lagun batekin etorri naiz eta Euskal Herria ezagutu nahi genuen, oihura eta kultura. Jendea ezagutzeko bidea ematen zuten elkarren onenek eta horregatik etorri naiz.
2. Jende oso jatorra ezagutu dut. Egiten dugun lana erantz da eta bidai oso politik egiten ditugu denbora librean. Euskal kulturaz asko ikasi dugu. Janaria ere oso ona da.



Eun Mi An
HOGO KOREA, 34 URTE
1. Lan hau egiten nahi nuen, eta jende berria ezagutu nahi nuen. Gainera lan hau eginez paisaia hobea-ko bat lortzeko balio zuen, beraz, hobea.
2. Gustura nago, oso leku polita da, mendiz inguratuta dago, jende ezberdineko ezagutzen ari naiz eta kultura desberdinek, jendeak desberdin pentsatzen du eta horrek erakarri egiten nau.



Nayany Mendez
MEXIKO, 20 URTE
1. Proiektu asko gustatu zitzaizdan. Mendiek eta ingurugoko ere erakarri ninduten, eta lurralde hau ezagutu nahi nuen.
2. Oso ondo pasatzen ari naiz, lana ez da oso gogorra eta aste gutxi ondo garatzen ari dela. Espero dut bertakoekin egun lan baloratzea. Euskal Herriko dantza eta festa asko gustatu zaizkit. Festa asko danda gainera.



Beatrice Guilhem
FRANTZIA, 20 URTE
1. Ez nuen Euskal Herriko hegoalde ezagutzen eta honek aukera ematen zidan. Iparralde ezagutzen dut berriz. Gainera, lana egiten nahi nuen.
2. Oso ondo doa. Asko gozatu dugu denek. Herriko tradizioak asko gustatu zitzaizkit, dantza eta jaiak. Islanidien egon nintzen lana egiten auzo batean baina dudarik gabek, Bedaio askoz hobea nago.

ELAk bere babesa azaldu die Santiago egoitzako langileei

Villabona » Greban ari diren langileek ez dute hau irailaren 15era arte utziko; udal-langileekiko parekatzea eskatzen dute.

REBEKA CALVO

ELA sindikatuak Villabonako Santiago zahar egoitzan greban dauden langileei bere babesa agertzeko manifestazioa egin zuen atzo herriko kaleetan barna. Guztira 600 bat pertsona bildu ziren bertan, asko antzeko gatazkatan ari diren beste udal-egoitza batzuetako ELAko ordezkariak zirelarik. Izan ere, Gipuzkoa osoan, orain, bost egoitzatan greban ari dira baita (Ordiziako San Josen, Andoaingo San Juan Bataiatzailean, Eibaroko Egogainen, Donostiako Aldakonean eta Villabonako Santiagon). Manifestazioa hasi aurretik, plazan, ELAko Osasun Saileko arduraduna den Idoia Elustondok eta sindikatuko Hitzarmen Kolektiboetako Konfederazioko arduradunak, Joseba Villarreak, hartu zuten hitza.

Pribatizazio politikoa

Elustondok emakume langileen borroka nabarmendu zuen eta «botere politikoez gizarte zerbitzuen alorrean daramaten pribatizazio politikaren morroi» direla argitu zuen.

Era berean, Santiago egoitzako langileek Villabonako Udalarri egiten dioten eskaera «diskriminazioarekin amaitzeko» dela esan zuen, izan ere udal-langileek baino 10.800 euro gutxiago jasotzen dute egoitzako langileek urtean. Santiago egoitzan batetik, udal langileak aritzen dira, eta bestetik, azpikontratatuak 23 langile, eta hauek daude, hain justu, greban parekatzea eskatzeko.

«Villabonako alkateak, Maixabel Arrietak, emakumea, abertzalea,

ezkertiarra eta diskriminazio ororen aurkako beharko lukeenak, negoziaketa ukatzen digu behin eta berri. Gatazka honen konponbidea ez omen da bere ardua eta Diputazioa bidaltzen gaitu», salatu zuen Osasun Saileko arduradunak.

Elustondoren hitzetan, Villabonako Udala da egoitzako zerbitzua Residencia Geriatrica Catalunya 2 enpresari esleitu diona eta bera da ere, «baldintza orrietan zenbat zerbitzu ordu behar dituzten, soldata eta langileen lan baldintzak ezarri dituen».

Hau guztia dela eta, ELAren ustez Udala da egoitzaren gatazka konponbidea «eskuetan» duena. «Beste udal-egoitzetan ere, horrelako gatazka izan direnean, zeharka edota zuzenean, beti Udalarekin egin dugu akordioa. Villabona bertan ere, 2004 urteaz geroztik, enpresa ituna izan dugu eta udaletxearen oniritziarekin sinatu izan da urtez urte. Orain berri, ezin dugu ulertu Villabonako Udalaren jarrera, batetik, eta bestetik, ANVko bezala aurkezten diren herritar taldeak langileekiko mehatxuan oinarritutako jarrera», esan zuen.

Horiek horrela, Errenteriako udal egoitzan parekatzea lortu dutela argitu zuen ELAko kideak, «hau horrela izanik, Villabonan zergatik ez da posible? Zergatik jartzen dizkigute hainbesteko trabak eta eragozpenak? Zergatik herritarren mehatxuak eta erasoak? Noiz arte jarraituko dugu egoera honekin?», galdetu zuen.

Alderdi guztiak berdin

Elustondoren ondok, Villarreak alderdi politiko guztiak «hone tan bat etortzen» direla esan zuen eta adibideak ere eman zituen. EUDELeko lehendakari eta Tolosako alkate den Jokin Bildarratzek, EAJ alderdikoa, ekarri zuen gogora eta Tolosako Iurreamen-



Idoia Elustondo izan zen manifestaldia hasi aurretik hitza hartu zuena. R. CALVO

din 100 bat emakume udal-langileek baino urtean 6.000 euro gutxiago jasotzen dutela esan zuen. «Bildarratzen ustez, Udalek kudeatu egiten dute, baina eskumena beste batena da», esan zuen Villarreak. «Alkarbideko Maite Etxaniz Gizarte Politikako Diputatuak dio ez dela Foru Aldundiaren kontua, eztabaida patronalaren eta sindikatuen artekoa dela. Bere hitzetan ez dute beraia ez den papeira egingo», nabarmendu zuen. «Garbi dagoena da langileen kontuak tartean daudenean, alderdi politiko guztiak bat datozela, bai ezkertiarrek, bai abertzaleak, bai sozialdemokratik, bai jeltzaleak, bai sozialistak eta baita popularrak ere. Denak berdinak dira! Neoliberal hutsak dira!», gaineratu zuen.

Villarreal eta Elustondoren hitzak eta gero manifestazioa egin

zuten herrian zehar eta behin plazarara itzulita Santiago egoitzako langileak igo ziren taula gainera. Hitza hartu zuena ELAko egoitzako ordezkaria izan zen, Estibaliz

«Garbi dagoena da langileen kontuak tartean direnean alderdi politiko guztiak bat datozela»

Yarza, eta lehenik eta behin bertan bildutako guztiei eskerrak eman zizkien.

Ondoren, Villabonako «ezker abertzaleko kideen mehatxuak» jasan izana salatu zuen eta Gemma Zabaleta, Eusko Jaurlaritzako Lan eta Gizarte Gaietako Sailaren arduraduna, ekarri zuen gogora greban %80ko gutxiengo zerbitzuak jarri izana salatzeko.

Gerra Zibilean fusilatutako 14 abade abertzaleen meza, gaur

Oroimena » Ondarretako espetxetik «aske» utzi eta gero eraildako Aitzol, Adarraga eta Arinen omenez egingo dute.

ERREDAKZIOA

73 urte berandago, baina azkenean Bilbo, Gasteiz eta Donostiako gotzaitzietako arduradunek Gerra Zibilean eraildako 14 apaiz abertzaleen omenezko meza egingo dute gaur, 12:00etan Gasteizko Katedral Berrian. Hileta-elizkizuna Bilboko gotzainak, Ricardo Blazquezek, Bilboko gotzain laguntzaileak, Mario Icetak, Donostiako gotzainak, Juan Maria Uriartek, eta Gasteizkoak, Miguel Asurmendik, egingo dute.

Fusilatutako 14 apaizen artean ere bazen eskualdeko apaizarik: Tolosako Jose Ariztimuño Aitzol, eta Villabonako Jose Adarraga Larburu eta Jose Joakin Arin Oiarzabal.

Barkamena

Apezpikuek orain arte ez dute 14 apaiz hauen hileta-elizkizunik egin eta beraz, «barkamena» eska nahi dute orain. «Ez dugu beste en epaile izan nahi, baizik eta Jainkoaren aurrean iraganeko eta orainaldiko mugak aitortu», esan dute. «Gatazka horrek heriotza, desagerpen, espetxeratze eta erbeste-ratze ugari ekarri zituen, eta Eliza ez zen sufrimendu horretatik kanpo egon», gaineratu dute gotzainek ohar batean.

Aipatu behar da, 14 apaiz hauek ez zutela hileta-ospakizun jendurreekorik izan. Elizbarrutiko Aldizkari Nagusian eta hildako apaizen erregistroan, gainera, Martin Lekuona eta Gerbasio Albizu apaizen izenak bakarrik agertzen dira. Dagozkien parrokiako liburuetan ere ez dago hauen heriotzaren arrastorik.

Frankitek hildako 14 apaizetatik 12 Ondarretako espetxean izan ziren fusilatu aurretik. Hauen senitartekoei aske utziko zituztela esan zieten, baina ez zen horrela izan eta fusilatu egin zituzten.

Tolosaldeko eta Leitzaldeko HITZAn jarri eta
Gipuzkoako beste 4 Hitzetan
DOAN agertuko da

HITZak Gipuzkoan 120.000 irakurle

ESKELAK • 19:00ak arte hartzen ditugu • tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info / Tel.: 943-65 56 95

hilberriak
urteurrenak
eskertzak

Irazu eta 'Pelex'-en erakusketak ikusgai Aranburun uda osoan

Kultura » 'Kolpez kolpe' eta 'Hotsez hots' lanekin beren azken urteetako obraren eboluzioa erakutsi nahi izan dute artistek.

ENERITZ IRAOLA

Atzo inauguratu zituzten Aranburu jauregian udako antolatutako erakusketak. Orain arte ez da erakusketarik izan uda partean. Lehen aldi honetarako, bertako artisten lanak hautatu dituzte, erakusketak «hemen sortzen denaren erakusgarri» izan dadin. Karlos Irazuren *Kolpez kolpe* eta Jose Luis Elexpe *Pelex-en Hotsez hots* lanak abuztuaren 31ra arte izango dira ikusgai.

Bertako artistak dira biak, biak antzeko materialaz baliatzen dira eta biekin azken urteetan beren obrak izan duen eboluzioa islatu nahi izan dute bere lanean. Hala ere, bakoitzak artea ikusteko modu ezberdina du eta hori nabari da Aranburuko erakusketan.

Irazuren 'Kolpez kolpe'

Karlos Irazuk azken hamar urteko lanak ekarri ditu erakusketara.

Egurra lehengaitzat harturik, hamar urte hauetan bere obrak izan duen bilakaera erakutsi nahi izan du. Larraul inguruko basoetan lortzen du egurra, eta hasiera batean gaztainondoaren egurra bakarrik erabiltzen zuen arren, egun, haritzarena, urkiarena... ere erabiltzen du.

Eguraren sustraiek inspiratzen zizkien formekin lan egiten hasi zen, gero, formak sortzen hasi zen. Urteek aurrera egin ahala, kolore gehiago erabiltzen hasi da. Bestelako teknikak ere erabiltzen ditu egurra erreta, egurra teilarekin edo buztinarekin nahastuta... Karakolak, onddoak, altzairuak... eskultura ugari ikus litezke. Bitxia da esate baterako, lurtean dagoen eskultura multzo bat. Bi oin ipini ditu lurtean eta honen gainean barraskiloak jarri ditu. Esanahi berezia du berarentzat. «Pauso bat ematerakoan, pauso txiki asko eman behar dira, barraskilo bakoitza erabaki bat da». Erakusketako beheko soilaruko gela batetik bestera igarotzearekin batera progresio bat ikus liteke, artistaren lanekin egun duen progresio bera. Erakusketara bertaratzen dena ere bilakaera horretaz ohartuko da.

'Pelex'-en 'Hotsez hots'

Jose Luis Elexpe *Pelex*-ek ere bere azken hiru urteetako eboluzioa erakutsi nahi izan du erakusketan. Txalaparta da bere obraren ardatza eta honela, egurraren mugimendu eta kolpeak ageri dira bere lanetan. Artistak «dardara, bibrazioa eragin» nahi dio ikusleari. «Kolore hotz eta beroak eta soinu grabee eta leunak, hau da, koloreak eta musika uztartu» ditu.

Hiru urte daramatza artearen munduan eta dagoeneko obra oparoa egin du. 120 koadro eta 40 bat eskultura ekarri ditu Aranburuko erakusketara. Egurra da bere obran nagusi, koloreak, sokak, brontzea, ere erabiltzen dituen arren.

Labori omenaldia

Pelex-ek beste euskal artista batzuk ere izan ditu gogoan bere lanetan. Iaz Usurbilen aurkeztu zuen erakusketan Artzeri omenaldia egin zion. Aranburuko erakusketan berriz, Mikel Laboa izan du gogoan. Honela, abenduaren leian, Mikel Laboa hil zen egunean bertan egin zuen lienzoa ekarri du erakusketara. *Txorria txorri* abestiari ere aipamena egiten dion eskultura egin du, honetan, Artzeren txalaparta eta Mikel Laboaren gitarra bateratuz. DVD bat ere osatu du, erakusketatik ikustera joaten denak lanketa prozesua ikus dezan. Mikel Laboaren abestia entzun liteke atzealdetik.

Artearen munduan hiru urte daramatzen arren, ez da bere ogibidea baina bere biziaren parte da dagoeneko. Berak dion bezala, «artetik bizitzea zaila da, baina artetik gabe ezin da bizi».



Karlos Irazuren *Kolpez kolpe* erakusketara dago ikusgai Aranburun. I.T.



Pelex-en lan esanguratsuenetako bat. Atzean Mikel Laboaren omenezkoak. I.T.

Udako irteerak antolatu ditu Oargik

Kirola » Abuztuaren 15etik 23ra bitarte bi irteera izango dira, bata Dolomitara eta bestea Valais ingurura.

E. IRAOLA

Oargi Mendi Elkarrekin udako irteerak antolatu ditu. Aurten bi irteera ezberdin antolatu dituzte, baina biak data berean izango dira, abuztuaren 15etik 23ra, hain zuzen ere. Irteeretako batean Dolomitak (Italia) bisitatuko dituzte, bestean berriz Suitzako Valais Kantoiaren dauden hiru gailurretara igotzeko aukera izango da. Batean zein bestean, mendiaz eta paisaia ederrez gozatzeko aukera izango da.

Dolomitara joango direnek, via ferratak egiteko aukera izango dute. Ez dira maila oso altukoak izango, baina bertara joaten denak alturetara ohituta egon beharko du. Marmoldan ere, Dolomitak mendirik garaienaren inguruan ibiliko dira. Kanpin dandatan egin-



Bidaietako batean Italiako Dolomitara joango dira. HITZA

go dute lo eta bertara joateko asmoa dutenek lehenbailen eman beharko dute izena. Horretarako Oargi Mendi Elkarrekin deituta 688 698642 edo info@oargi.org helbidera idatzita. Izena emateko orduan 80 euro aurreratutako behar dira Euskadiko Kutzako 3035 00281102 8114 1038 kontu korronteko zenbakian. Irteera honetara eman beharreko materiala honakoa da: arnesa, kaskoa, via ferratak egiteko disipadorea, seguritateko bi mosketoi, kranpoiak eta pioleta. Suitzako mendiez gozatzeko aukerak erantzen dutenak, Valais-ko Kantoiara joango dira eta Allalinhorn

(4.027m), Strahlhorn (4.190m) eta Lagginhorn (4.010m) mendiak igotzeko aukera izango dute. Abuztuaren 15ean abiatuko dira Tolosatik Saas Grund herrira. Abuztuaren 16an Britannia aterpera igoko dira Saas Fee herritik, bertatik igoko baitira abuztuaren 17an Allalinhorn mendira (4.027m). Bost orduko iogera izango da eta 1.050 metroko desnibelarekin. Abuztuaren 18an Strahlhorn mendira (4.190m) igoko dira. Bost ordu eta erdi beharko dituzte 1.600 metroko desnibela duen mendira igotzeko. Abuztuaren 19an Britannia aterpetik Saas

Grund herrira jaitsiko dira eta bertatik Weissmies aterpera igoko dira. Abuztuaren 20an Lagginhorn mendira igoko dituzte (4.010m). 5 orduko iogera izango da eta 1.280 metroko desnibela du. Bertatik, Saas Grundera jaitsiko dira. Abuztuaren 21 eta 22an egun libre izango dira, eta 23an etxera itzuliko dira. Izena ematean 90 euro aurreratutako behar dira, Oargin bertan edo Euskadiko Kutxan 3035 0028 1102 8114 1038 zenbakian. Irteera honetan kranpoiak, pioleta eta arnesa behar dira.

@ Zurea da hitza. Zure inguruko berriak sartzeko aukera duzu *Zurea da hitza* izeneko atalean gure webgunean. Berriez gain, iritziak, kexak, iradokizunak... ere sar ditzakezu, eta argazkiez ere lagun ditzakezu. Atal honetan sartuta dauden berrien inguruko iritziak ere eman ditzakezu. Berri edo albisteen bat sartzekoan zure datuak sartzeko ere gomendatzen dugu.

www.tolosaldeko-hitza.info

Altuna II San Fermin Torneoako finalean ariko da gaur

ERREDAKZIOA

San Fermin Erremonte Torneoako finalean lehiatuko da gaur, Altuna II.a amezketarra. Herenegun 24-40 irabazi zuen San Miguel bikotearekin batera Ezkurak eta Barriolak osaturikoaren aurka, eta ondorioz finalera pasa ziren. Uharterteko frontoian izango da partida, eta jaialdia, 16:00etan hasiko da.

Iragarki laburrak

LANA

■ **Garbiketak.** Bigi garbitasunak. Garbiketa orokorrak, obra bukaerako garbiketak, bulegoak, etxeak, motekak eta alfonbrak. Deitu inongo konpromisorik gabe: 638 944 604 (Gurutze) eta 695 708 271 (Belen).



Argitaratzailea: Tolosa Herria Hedabideak S.L.
Lege Gordailua: SS-0398-03
Zuzendaria: Noelia Lataburu
Egoitza nagusia: Araba Etorbidea 5, atzea, Tolosa.
Telefona: 943 65 56 95. **Faxa:** 943 65 00 18
Leitza: Herriko plaza, 1. 687 410 118
E-posta: tolosaldean@tolosaldeko-hitza.info.
Webgunea: www.tolosaldeko-hitza.info

Zuzendariordea: Iñigo Terradillos. **Kudeatzailea:** Maider Garaikoetxea.
Publizitatea: 661 678 818 tolosa@irragarri.net.
Tolosa: 687 410 082-687 410 033. tolosa@tolosaldeko-hitza.info.
Villabona: 687 410 022. villabona-aiztondo@tolosaldeko-hitza.info.
Anoeta: 687 410 022. anoeta@tolosaldeko-hitza.info.
Ibarra: 687 410 032. ibarra@tolosaldeko-hitza.info.
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@tolosaldeko-hitza.info.
Leizaldea: 687 410 118. leizaldea@tolosaldeko-hitza.info.

Tolosa Herria Hedabideak S.L.ko kideak:



eta Tolosaldeko eta Leitzaaldeko beste 77 eragile

Hitza-k Bai Euskarari



'Hitza' diruz laguntzen duten erakundeak. Udalak: Aduna, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Areso, Balarriain, Belauntza, Berastegi, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Leaburu, Leitza, Tolosa, Villabona, Zizurkil

Gipuzkoako Foru Aldundia

Hitza-ko bezeroen arreta zerbitzua (zalantzak argitzeko, harpidedun egiteko): **902 82 02 01**

A Agenda

Jaiak

■ **Tolosa.** Zerbeza edateko festa izango da Berazubin hilaren 18an (zerbeza mota desberdinak, kodillo eta saltxitxak, 5 euro). Izen-ematea, Berazubi elkartearen.

Erakusketa

■ **Hernialde.** Uztailearen 13ra argazki erakusketa ikusgai hernialdeko ostatuan. Erakusketaren izenburua: *Sahararak, herri bat erbestean*. Ander Gillenea argazkilaria ki Tinduf-eko errefuxiatu eremuan ateratako argazkiak.
■ **Tolosa.** Karlos Irazuren *Kolpez Kolpe* eskultura eta egurgintza erakusketa Aranburu Jauregian.
■ **Tolosa.** Pelex artistaren *Hotsez Hots* eskultura erakusketa Aranburu Jauregian.

Irteerak

■ **Tolosa.** Igandean, hilaren 12an, Arcena mendizerrara (Valderejon, Cueto eta Mota mendiak igoz) joango da Alpino Uzturre elkarteak. Izen-ematea, elkartearen (943 652789, alpinouzturre@hotmail.com).
■ **Tolosa.** Hilaren 13tik 19ra La Alberca-ra irteera antolatuta du Harizpek. Izen-ematea, elkartearen (pentsio osoa 257 eta 262 euro).
■ **Tolosa.** Topaguneak antolaturiko Udagazteako irteerak: hilaren 16an Olaberriako Karts zirkuitura, hilaren 18an egun pasa Nutrikun eta Spraykada grafiti festan parte hartu eta hilaren 22an Lekunberriko kirol abentura parkea. Izen-ematea Topagunean bertan egin ahalgo da.

■ **Tolosa.** Abuztuaren 1etik 13ra Santiago Bidea bizikletaz kostatik, Tolosatik abiatuta, kiroldegietan lo eginez eta otorduak jatekheetan eginez. Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.

Deialdiak

■ **Asteasu.** Santamañako IX. Igoera korrika bihar 10:30ean (7 km) Izen-ematea, 943 696896 eta 943 693400 telefono zenbakietan.
■ **Tolosa.** Udako liburategia Usabaligerilekuan, asteleheneetik larunbatera 15:00etatik 19:00etara.
■ **Tolosa.** Tailerrak gazteentzat: hilaren 10ean bitxiak egitea, hilaren 14an henna, hilaren 24an grafiti, hilaren 15ean filma proiektatuko dute eta 17an merendola eta karaokea. Izen-ematea, Topagunean.
■ **Tolosa.** Zuentzart eskulan denda, udarako eskulan ikastaroak antolatuta dituzte. Taldeak urmeentzatzat nahiz helduentzatzat irekiak daude. Izen-ematea denda (Gernikako arbola, 4) edo 676140622 telefonoan.

» GUARDIAKO FARMAZIAK

■ **Tolosa.** Santamaria, I. Nafarroa etorbidea, 2. 943 654610.
■ **Betelu.** Carrillo, A. Kale Nagusia, 5. 112.
■ **Irurtzun.** Mutiloa, A.M. San Martin, 5. 112.

HITZAK ez du bere gain hartzen egunkariaren adierazitako esanen eta iritzien erantzunik.

A Agurrak



Urte askoan!

Uztailaren 1ean aitona Inaxiok, 11n amona Juanik eta 12an osaba Iñakik urteak betetzen dituzte. Piztu kandelak Zorionak abestu eta txalo egiteko! Itoit.



Urte askoan bio!

loritzek gaur (8 urte) eta Aiertek bihar (...)! Ze uste zenuten, ahaztuta geundela? Jajaja... Ondo pasa! Muxuak Villabonatik!



Urte askoan!

Zorionak Aiert.

Etxeokoen eta maite zaitugunon partetik.



Urte askoan!

Zorionak loritz.

Zure zortzigarren urtebetetzean. Etxeokoen eta maite zaitugun guztion partetik.

agurrak

urtebetetzeak
urrezko ezteiak
ezkontzak
jaioberriak
jaunartzeak...

Mesedez, ekarri argazkia bi egun lehenago ondoko leku hauetako batera. Mila esker.

- HITZAren egoitza Tolosan: Araba etorbidea, 5 behea
- HITZAren egoitza Leitzaan: Udaletxe bulegoa

agurrak

berria **bekak**
2009

NORENTZAT:

- Unibertsitate titulua duten gazte esperientzia gabeentzat
- Prestakuntza teoriko-praktikoa jaso eta karrera profesionala bideratu nahi dutenentzat

Kazetaritza arloa: **zortzi beka**, horietako bat, bideo informatiboak lantzeko.

Zuzenketa-itzulpengintza arloa: **beke bat**.

Ezaugarriak:

- Bederatzi hilabeteko iraupena, urritik ekainera
- Astean lau eguneko jarduna
- 6.255 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian edo ordezkaritzetan

Ezaugarriak:

- Hamabi hilabeteko iraupena, urritik irailera
- Astean lau eguneko jarduna
- 8.340 euroko diru laguntza
- BERRIAk Andoainen duen egoitza nagusian

Eskaerak aurkezteko azken eguna: 2009-09-08

Eskaera egiteko orria eta beka deialdia www.berria.info helbidean dago eskuragai

AUKERA ezazu, BIZI euskaraz **berria**